

Amodio galduaren minaz 'Bi hitz' idatzi du Goiak

Segura » Nora ezean dabilen neska baten bidea kontatzen du Garazi Goia segurarrak bere lehen eleberrian

ERIK GARTZIA - BERRIA

Bi hitz. Izenburu horixe eman dio Garazi Goiak (*Segura*, 1978) bere lehen eleberriari. Hitz gutxitan gauza asko esan daitezke, eleberri bat osatzeraino. Goia Londresen bizi da eta lehen lana sortzeko inspirazio iturri izan du.

Goiak *Bi hitz* eleberriko protagonista Berlinen «amodioa galdu duen neska bat» dela esan du. Alemaniatik Londresera joango da, eta han beste bizitza bat hasteko aukera du. Beste bizitza bat, baina bakardadean. «Bakardade sentimendu horrek beti darana protagonista atzeratzen; *ahaztea ahaztu zait*

esaten da askotan liburuan, protagonista ezin baitu ahaztu bere erlazioa».

Amodio hori berreskuratzeko, «edozein gauza egiteko gai da protagonista, obsesionatua bizi da, bere maitale ohiaren maitasuna beste batekin konpartitzeko prest egotera itzisi arte». Obsesio horren egunkaria da eleberria, eta bertan protagonistak bere sentimenduak islatzen ditu: eromena, beldurra, bakardadea, sexurako grina, mina...


Liburuko protagonista, Londresen dagoela, «askotan galdua sentitzen da, nor a ezean dabil eta era askotako esperientzia eta hai remanek probatuko ditu, eta, hala ere, galduetako amodioaren presentzia nahitaezkoa zaioa konturatzeko», Goiak dioenez.

Eleberria bertan agertzen diren pertsonaia askok egituratzen dute, «pertsonaia iri bizitza baldintza-

zen dioten iradokizunak» egiten dizkiotela azaldu Goiak. «Obsesioa ahazteko terapia bat aholkatuko dio Michael izeneko pertsonaia, alfabetoko 27 hizki bakoi-tzarekin gauero hitz bat idazteko». Eskutitzek ere presentzia handia dute, baita maitale zibernetiko batakere ere.

Prosa freskoa

«30 urteko neska gazte bati dago-kion moduan» eleberria «prosa fresko, bizi batean» idetzia dagoela dio Alberdaniako Inazio Mujika Iraolak. «Modu eraginkor batean antoiatutako oso esaldi laburak ditu», baina bat bera sobera gelditzen ez dela gaineratu du Mujika Iraolak. Kontakizuna «era alai batean» egiten du, nahiz eta Goiak «errealitate gordina» duen mintzagai. *Bi hitz*, nola ez, luzatu zizkion Garazi Goiarri: «Jarraitu idaz-ten».



Donostiako Alde Zaharrean aurkeztu zuen Garazi Goia segurarrak bere lehenbiziko liburua. GARI GARAI/ALDE-ARGAZKI/PIRESS

Laburrak

Tobera Musika Eskolako matrikulazio epea irekita

GOIERRI » Tobera musika eskolan matrikulatu nahi dutenentzako zehaztu dituzte egunak. Zegamarrek hanga kultur etxean eman ahal izango dute izena, ostegunean edo ostiralean 18:30etik 19:30era. Segurarrak egun eta ordu berean herriko kultur etxera joan beharko dute. Zeraindarrek, berriz, Rebeka Kintela batzordekidearekin jarri behar dute harremanetan.

Jubilatuak irteera egingo dute Errioxara bihar

SEGURA » Jubilatuak eta pentsionisten Atsedeen elkarteak antolatuta segurarrak Errioxara joango dira bihar. 08:30ean Jermainetik irten- tango dira. 11:00etan bisita gidatua egingo dute Haroko Bodegas Bilbainasen. Gero Haron ibiliko dira, eta bazkaria Rodeznoko Maria Vega jatetxean dute. Arratsaldean Ozkabartera (Santo Domingo de la Calzada) joango dira.

Kizkitzako ingurunea txukuntzen ari dira

EZKIO-ITSASO » Kizkitzako pagadia soildu eta garbitu egin dute. Orain ermita inguruaren txukuntzari dagokion bigarren zatia egingo du Ezkio-Itsasoko Udalak. Pagadiko mahaiaik aldatu eta bidexkak ere irekiko dituzte mahaien artean, jendea handik ibil dadin. Bestalde Kizkitzako ermitaren ondoan pa-nel informati-bio bat jartzeko asmoa ere badu Udalak.



'Karlistak' eta 'liberalak' jolasean

ORMAITZEGI » Iganeko Museoen Nazioarteko Eguna jolasean ospatu zuten atzo Ormaiztegioko haurrek, Zumalakarregi Museoko kideak gidari ziztuztela. Karlisten eta liberalen taldeetan banatu eta herriko plazan barrena ibili ziren proben bila. Proba guztiak gaitunduta altxorra ere bilatu zuten, batzuek zein besteek. Batzuen kutxatxo handiagoa zen besteena baino, baina inork ez zuen proba galdu. *Tirobira Ormaiztegin* jokoan ez baitago gaitzailerik. Ederki asko igaro zuten guztiek. ESTIUXURMAZ

Lopez de Munain eta Larraza izango dira gaur 'Bixi-bixi' saioan

Segura » Legazpi Seguratik banatu zela 400 urte betetzen direnean, data hori eta ekitaldiak izango dituzte hizpide.



Xabier Lopez de Munain. M. LUKI

ERREDAKZIOA

Legazpi Seguratik banatu zela lau-rehun urte betetzen dira aurtten, eta hainbat ekitaldi diren bidez ari dira data gogoratzen. Legazpi 400 Urte Aske batzordeak antolatuta Xabier Lopez de Munain eta Bit-tor Larraza legazpiarak izango dira gaur Segura Irratiko estudioan zuzenean, *Bixi-bixi* programan. Datu historikoak eta gaur egungo ekitaldiak izango dituzte hizpide. Legazpiko udaletxeko artxibozai-na da Lopez de Munain eta udala-ren webgunean arduradun Larr-azak.

Asteazkenero Segura Irratian entzungai izaten da *Bixi-bixi*, 12:15ean. EBPN Euskara Bizibe-rritzeko Planaren barnean zuzenean egiten den saioa da, Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri euskara tal-deak buitzatua eta Segurako Uda-laren laguntzarekin.

Ohiko atalek ere izango dute lekua saioan

Asteroko atalei ere egingo diete tartea beti bezala. Maizpide eus-kalgetik irakasleek euskara txu-kun erabiltzeko aholkuak emango dituzte. **GOIERRIKO HITZA** egunka-ritik ere ariko dira. Euskara Bizibe-rritzeko Planaren kudeatzaile Aitor Calvillo Planari buruzko be-rriak emango ditu eta Santos Belo-kiik Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri taldeko kideak gutxi erabiltzen di-

ren hitzen memoria freskatuko du Olerki ederrik ere ez da faltako bere hitzetan.

Entzuleen parte-hartzea bul-tzatzeko hilabete honetan ere gal-dera luzatu dute: *Bixi-bixi* irra-tsaioa urriaren 11n hasi zenetik, ohiko parte-hartzaileez gain, gon-bidatuak izan diren hiru lagun-en izenak eman behar dira. Et antzu-nak emateaz gain edozein iradoki-zun edo proposamen ere luza dai- teke bixibixi@euskalerria.org hel-bidera idatzi eta baita irratiko telefonora (943 80 10 41) deituz ere, irratsaioak irauten duen bitar-tean. Erantzuna zuzen eman dute- nen artean Ataungo Urbitarte sa-gardotegian bi lagunentzako afaria zozkatuko dute.

Bixi-bixi-ren errepikapenak os-tegumetan 19:00etan eta igande- tan 10:30ean izan ohi dira, FMko 89.2 sintonian.

Iragarri laburrak

SALGA!

■ **Karabana.** Sei pertsonarentzako toki duen karabana salgai Orioko kanpnean. 943 08 69 48 - 943 08 68 79